


Juan San Martin Liburutegia

“Idazlearekin harixa emoten”



Sotoan gordeak

Miren Gorrotxategi Azkune,
Txalaparta, 2021

Iruzkina: Antxon Narbaiza, 2021-10-05



Wikipedian

<https://labur.eus/7wIAE>

Literaturaren zubitegia

<https://labur.eus/tQyoR>

Idazleaz

Miren Gorrotxategi ez dugu ezezagun bat suspensearen munduan. Hain zuzen, duela zenbait urte gure forora deitu genuen bere lehen lana argitaratu zuela eta: **33 ezkil** deitzen zen hura. Nobela nekazari drama gordin bat genuen, gero, pelikula bihurturik, 2020an zineman estreinatuko zena, **Hil Kanpaiak** izenburuarekin.

Orduan ez genuen aukerarik izan Miren gurera ekartzeko aurtengoan beteko da guztion nahia.

Datu batzuk hasteko

Liburuaren kontrazalean adierazten den bezala, eleberria Baztango udalak Euskal Herrian literatura beltza sustatzeko (**H**)ilbeltza bekaren irabazle gertatu zen 2019an.

Hamalau kapitulutan osatua gehi epilogo bat, guztira 218 orrialde dituen eleberri beltza dugu **Sotoan gordeak** hau.

Aurrekoarekin erkatuz, nobela berri honetan, **Sotoan gordeak**-en, eszenarioa dezente aldarazi du Mirenek: mahastiak eta upategiak dira argumentuaren kokaleku nagusia. Ardoaren negozioaren inguruan, eta, dirua lagun, bertan, besteak beste, eskrupulu gutxi erakusten duen jendea ezagutuko dugu.

Ohartxo bat jarraitu aurretik

Nora eta Alexek osatzen dute hastapenetik nobelan barrena ezagutuko dugun bikote protagonista nagusia. Puntu honetan esan behar, arreta galdu samar dabilen irakurleari, batez ere, hitanoaren erabileran ohiturarik ez duenari, Alex ez dela *gizonezko* pertsona, Alex, andrazkoa da. Beraz, Norak eta Alexek sexu bereko bikotea osatzen dute.

Erakusketa bat inspirazio-gai

Narrazioa hobeto jarraitzeko oinarri batzuk ditugu Joana Vasconcelos artista portugaldarrak Bilboko Guggenheimeko erakusketan plazaratu zituen obrak: gehienak gero iruzkin honen **eranskinean** agertuko ditugu. 2018an gertatu zen erakusketa hura, eta, bertan eleberrian barrena agertuko diren objektu eta erreferentzia asko ezagutuko ditugu: pistolak *Call Center*, txontxongilo modukoak *Egeria*, forma bereziko bihotzak (Viana do Castelo-ko bihotzak)¹, inoiz beltzak, eta susmoak: itzalak, oinazetan bizi diren pertsonaiak. Eta fadoak, Amália Rodriguesen ahotsetik. Euren hitzek giza harremanen zailtasuna erakutsi nahi dute: Nora eta Alexen kasuan bezala. Eta, eleberrian zehar protagonista zein lekuko izango den bikoteaz kanpo, hots, Nora eta Alex, misterioa

¹ Badirudi lekuizenak eurak ere Portugaletik erakarri dituela egileak: **Viana do Castelo** han, **Viana** hemen.

elikatzen duen itzal hura edozein unetan susmatu edo irudikatuko dena. Eva, hirugarren emakume protagonista dugu, hain zuzen, eragile zein biktima izango baita.

Kontakizunaren kronologia

Berritasuna dugu, neurri batean, eleberriaren egituraketa: 1989, 2009 eta 2019. Horra hiru urte, hiru data, hiru erreferentzia, hots, gertakari multzoz osatuak zeintzuetan eleberrian barrena jazotzen diren gorabeherak plazaratzen diren. Hogeita hamar urteren aldian, beraz, jardungo du eleberriaren hauspoak.

Egia esatera, kontaeren sakabanatze honek, irakurleari aurrera zein atzera egitea, etengabe, narrazioan zehar ahalbidetzen dio; badirudi hainbat kapitulutan *crescendo* garbirik gabe utziko duela nobela. Baina ispilatze hutsa da. Egia da, noizbehinka egoerak irakiten datozela eta suspensea dariela baina, denboraldiz aldatzean, beste baterako uzten da egoeraren tentsioa. Zinemak erabili ohi duen formula dugu zalantzarik gabe, telefilmekin, serietan eta abar ematen dena, baina gure iritzia da, egilearen hautabide honek kontakizuna lauagoa bilakatzen duela, hots, sakabanatze horrek suspensea *lighthagoa* bihurtzen duelakoan gaude. Halere, esan daiteke, azken kapituluetan biziki indartzen dela nobelaren baieztapen eta aitortzenen erritmoa. Horretan ohiko nobelagintza aritzen den antzera dabil **Sotoan gordeak** hau.

Mahastiak, upategiak, ardoa eta beste hizketagai gehiago

Promiskuitatean bizi den gizatalde bat dugu Arduy izeneko upategian negozio egiten ari dena. Ez dago beraien artean familia hurbiltasunak sor lezakeenaz kanpo inolako balore-bateratasun handirik. Izatekotan, diruaren ugaritasunak eman dezakeena egongo litzateke. Batez ere, Thomas mediku frantsesa, Mateo eta Asun senar-emazteek osatzen omen duten aipaturiko upategiko burutza. Eta, hain zuzen, diruaren aberastasun horrek, aldi baterako behintzat, faktore lotzaile bezala funtzionatuko du beraien artean.

Hasiera indartsua

Eta paraleloan beste hari narratibo bat: Nora eta Alex. Bi izaera guztiz desberdin. Aurpegia eta ifrentzua. Nora Arduytarra izateak baldintzatzen du, eta ez gutxi bien arteko harremana. Norak, besteak beste, ezegonkortasun emozionala erakusten du, beti ere, bere mamuak atzetik dituela. Norbaitek kalte egin nahi diola seguru dago. Alexek beste muturra erakusten du, dio. Maitasunak sortarazten dion konfiantza eskaintzen dio amoranteari. Bitasun inperfektoa baina agian osagarri: hark zalantza eta etsikortasuna erakusten duen bitartean, azken honek, Alexek, fidelitasuna eta laguntasuna eskaintzen

dizkio. Ez da gutxi izango Arduytarren biziera ezagutu ondoren. Gainera, ez da Nora bere familiaren lasaikeria girotik libratuko.

Arduytarrak

Eta ardoaren aitzakian dabilen negozio beltza gobernatuko duten eskrupulu gutxiko, nahiz eta normaltasunezko itxura erakusten duten maiz pertsonaia batzuk:

Asun eta Mateo senar-emazteak, itxuretan baino ez dira bikote. Mateoz deus gutxi esaten da nobelan barrena, pertsonaia grisa, ñabardura gutxi azaltzen duena, hori bai, arestian aurreratu dugun bezala, upategiko agintarien emakumeen era guztietako trafikoan atzean geratzen ez dena dugu.

Aspaldi ahitu zen bestalde senar-emaztearen arteko maitasuna. Mateo hil egingo da eta, Asun, erizain lanbide noblearen azpian, bere helburuak betetzeko edozer egiteko prest agertzen da. Hastapenean eta amaiera aldean agertzen den Thomas zirujaua euren trikimailuek funtzionatu dezaten ezinbestekoa gertatuko da.

Upategiaren inguruan aritzen diren pertsonaiekin amaitzeko, Érico izeneko kapataza dugu. Berau ere oparotasunaren festara gonbidatua dugu, nahiz eta gero gutxietsia izango den. Denetik egiten du eta, dena dirudienez, bere nagusien adostasunarekin. Konfiantzazko gizona baino askoz gehiago da, armatua dabil eta, prest dagoitsu-itsuan agindutakoa betetzeko. Portugaldarrak, bere gain hartu beharko du upategian gertatzen den irregulartasuna. Espetxetik itzuliko da hamar urteren bueltan eta prest dago berriro ere *lanari* ekiteko.

Eva lehengo eta oraingoan arteko lotura

Eva bilbotarra omen den neska dugu zelanbait eleberriaren aldi osoa, hots, 1989tik 2019ra doan denbora, hogeita hamar urtekoa bilbatzen dituen, eta da, kontakizuneko pertsonaia nagusia eta inportanteenetakoa.

Eva, bada, nobela beltz honetako ardatza den osagaia dugu: Evak estu jartzen du Arduytarren inperioa, badaki haiek nola egiten zuten ardo *berezi* hura, gero dirutzak ordaintzen baitzituzten askok. Estu jarriko ditu Arduytarrak, horregatik saiatzen dira bera hiltzen, bahitu eta zulo batean, sotoan, gordeta edukitzen dute. Horren ondorioz, Eva bizia galtzeko arriskuan egongo da, ihesi nahian aurpegia suaren eraginez erabat desitxuraturik geratzen zaiola. (143-147 orrialdeetan nobelako klimaxa lortzen da gure ustez, Eva etsi-etsian suaren ihesi nahian ari dela). Baina asko jakitera iristen da Arduykoen negozio beltzez. Hordagoa bota eta garaile aterako da. Hori bai, garesti ordainduko du ataka gaitzetik irtetea.

Evarengan esplizitatzen da langileek, batez ere etorkinek, jasaten duten lan-esplotazioa. Evak baina ez du etsiko: Sotoa upategia sortuko du, besteen maldan behera probetxatuz.

Evak beraz, handik eta hemendik, gezur eta egia, lepoko salagarriak biltzea lortu du, Arduytarren kontrako lekukoa, eta, batez ere, beraien beste praktika gaitzesgarriak aurkitu.

Evak berak, halaber –helburuak bideak zuritzen ditu–, Ana Dianaren heriotza ere mendekatu egingo du Arduytarren nagusikeriaren aurrean. Bera zen eta ez portugaldar neska liraina haien jomuga. Eva, laburbilduz, aingeru mendekatzailea bihurtzen da, nahiz eta beste zenbaitek protagonismo gehiegizkoa leporatzen dioten. Azken finean, zertako sortu du Soto upategia, bere burua aberasteko ez bada?

Nobela beltzaren kokagunea

Pentsatu izaten da suspensekoak edo beltzak deitu ohi diren kontakizunetan, azala, formak ez duela horrenbesteko garrantzirik, alegia, askoz inportanteagoa edukia dela. Baina zertzelada hori erlatiboa da. Gauza da beti ere ongi baino hobeto funtzionatu behar duela fikzioak, noski, tramaren arkitekturari zuzendua, ez horrenbeste nola esaten den, baizik eta testuaren koherentziaren mesedetan zer egin dezakeen. Honekin loturik datoz, kontaerak irakurlearengan sor lezakeen interesa, beldur edo agian izu-uneak sorraraziz. Antsietatea batzuetan, galderak beti: zergatik, noiz, nola, norekin?

Testuak bada, besteak beste, irakurlearen baitan galdekizunak iradoki behar ditu, are gehiago, irakurlea bera ere berridazle bihur liteke, hots, arestian aipatu dugun kontaeraren barrunbeetan, berak nola ebatziko lituzkeen nobelan plazaratzen diren dilema edo itaunak bururatzearaino.

Dialogoen indarra?

Behar bada, nobelaren puntu ahulenetako bat izan liteke bertako zenbait dialogok erakusten duten sinesgarritasun urria. Adibidez, Eva bahiturik dutela, suposatzen da Arduytarrek egina mendeku bezala, beraren eta Érico portugaldarraren arteko hizketaldiak sinesgaitzak dirudite: zulo batean datza Eva eta Érico kapatazaren bisitak izaten ditu. Éricok jan-edana eta garbitasunezko arazoak konpontzen *laguntzen* dio neskari. Bada, harreman haren giroa ez zaio gehiegi uztartzen berez egoera tentsionatua behar lukeen bati. Badirudi, Estokolmoko sindromeak jota dagoela. Dialogoek, egoera hartan, beti ere gure ustez, indarra falta dute, xaloegiak dira egoerari behar lukeen tentsioa edo dramatismoa emateko.

Nora bere buruarekin borrokan

Gainerako pertsonaien introspektzio handirik ematen ez den bitartean, haiek beren ekintzengatik dira ezagunak ezen ez pentsatzen dutenagatik edo, Nora, Alex eta Eva, batez ere lehenengoa, burruka handian dabil bere buruarekin. Nora kontraesanez beterik bizi da. Gazteago zeneko abenturak ezkututzen dizkio Alexi, nahiz eta bere amorantea izan, beretarrek bahitu eta egoera txarrean eduki duten arren, Arduytarra da goitik behera.

Nora, hipokondriakoa, klaustrofobikoa, eta, maiz, lotsagaldu samarra da. Zorabiatu egiten da bere kontzientzia ez duelako garbi baina ez du zalantzarik izango beretarrak defendatzen, baita Alexen aurrean ere, era makiabelikoan egin ere. Ez dio Érico espetxeratu zuteneko egiazko arrazoia emango, konbentzituta baitago, “esan gabeko egiak ez direla gezurrak” (33).

Objektuak, koloreak, irakurlearen kitzikagarri. Fenomeno paranormalak

Saiatu da egilea, objektuak ikusmenaz irakurleari hurbiltzen: txontxongiloak, kutunak, fetitxeak, koloreak, usainak, maiz sinestesiak erabiliz. Eta koloreetan beltza da nagusi zeina agi denez, kontakizuneko hainbat pertsonaiek ez duten batere estimatzen. Patu txarra omen dakar. Arrosa beltzak agertzen dira Mateoren tanatorioan. Ana Dianak esaterako, lepoko beltz bihotz formako bat darama, Evak lapurtzen dion arte. Beltza da Noraren familiaren autoa. Antitesia dirudi, ostera, zuria, arrakastaren zeinu?, Evak berak xake jokoko erregina zuria darama 2009an.

Beste arlo bat osatzen dute fenomeno paranormalek kontaeran: sorginkeriaaren presentzia, adibidez, han-hemenka (egilea dokumentatu egin da, Las Cañas-ko gertakariak aipatzen ditu), hotsak...

Euskaraz bi hitz

Nobelan ageri den euskarak ez du inongo arazorik irakurle arruntarentzat, errata eta akats batzuk (20, 23, 204, bi aldiz), eta beste zenbait hitz gora behera. Gure arreta deitzen du, dena den, **mendema**, **mendematu** terminoak, gaztelaniazko *vendimia*, *vendimiar*-en sinonimoa.

Iritzia

Hasteko, eleberri honi norberak izan dezakeen iritziaz kanpo, aitortu behar zaio egileari kontakizunaren prestaketan hartu duen ardura bere hari narratiboa sendotzeko.

Eranskinean izendatzen dugun Joana Vasconcelos portugaldar arte-langilearen erakusketa Bilboko Guggenheimen du hizpide². Aipaturik geratu da beraz, egileak erakusketan zein eta Portugaletik jaso dituen Viana do Castelo hiriko ondarearen eta Amália Rodriguesen fadoen indar dramatikoa. Sorginak eta bestelako naturaz kanpoko eginak ere aipatzen ditu kontaeran zehar. Hor dugu Endregoto (Andregoto), Vianako sorgina, herri literaturan Xabier Antoñana nafar idazleak aipatua. Hain zuzen, berak aipatzen duen Viana eta Logroño arteko Salobreko urtegia barne, sorgin haien kokagunea.

Eskertzekoa da beraz Miren Gorrotxategiren ahalegina bere nobelari erudiziozko hondar hauek emateagatik.

Iruzkin honen hastapenean aipatu dugu horrelako kontakizunetan idazleak ezinbestekoa duen haren arkitektura zuzen ezartzeak, narrazioko datak egokitu inkoherentzian erori gabe. Eta, badirudi, zertzelada hori betetzen dela eleberrian. Adibidez, Asunek bere alaba Nora erditzen duen unean, Eva jadanik ari da bere mendekuan pentsatzen.

Nobelari buruz esan, ez dela gure iritziz, suspense edo beltza deitu daitekeen ohiko nobela. Hemen gutxi dira crescendoak, egoera lar tentsionatuak, eta galdekizun diren itaunak emeki-emeki joango dira askatzen batez ere, azken kapituluetan. Paradoxa da, halere, nobela berez ez dela urte garaikideenean, hots, 2019an, baizik eta 2009an nolabait amaitzen, zeinetan Eva, egiazko erregina sentitzen baita, hiru lepokoen eta USB memoriaren jabe. Garaipena bere-berea du. Jakina, bizitzaren irakaspena edo moraleja balitz bezala, hemen ez du leialena, zintzoena denak irabazten baizik eta arriskurik handienak hartzen dituenak, nahiz eta horretarako etikaren lege isiletatik urrunduta beharko duen, indarra eta zortea lagun dituela.

Halaber, esan behar, asmatu egin duela bete-betean egileak gure ustez, aktante edo pertsonaien soslaian. Esan nahi dugu, manikeismo antzuan erori gabe, beraiek eguneroko bizitzaren antz handia dute. Alexen salbuespena eginez, agian, eta berau “negozioan” interesik ez duen pertsonaia ia bakarra baita, besteak, gehienak seguruenik, gaizkiaren eta ontasunaren ukituak dituzte.

² Portugaldarren presentzia ugaria da nobelan zehar: etorkin zein protagonista, beraien aipamena etengabea da.

ERANSKINA

Joana Vasconcelos artista Guggenheim museoan.

Erakusketa 2018an izan zen eta bertan, gure egileak inspirazio-iturria aurkitu zuen. Hona hemen ondorengo irudietan eleberrian aipagai diren osagai batzuk.



Call Center, Joana Vasconcelos-en lana. Hona hemen hartaz zer esaten den:

Call Center se presenta bajo la forma de una enorme pistola **Beretta** fabricada mediante la acumulación de 168 teléfonos negros, todos del mismo modelo. **La forma hiperbólica de una Beretta hecha de decenas de teléfonos apunta directamente a la violencia que puede producir la comunicación masiva.** El título, asociado a estos objetos en cuestión, parece hacer referencia a la manipulación y la deshumanización excesiva propia de muchos *call centers*. Un arma no puede deshacerse de su carga violenta, por más noble que sea la razón de su uso; del mismo modo, la comunicación a gran escala, normalizada, controlada y con fines de manipulación, siempre será un ejercicio que coarta las infinitas singularidades del individuo.

Portugaleko Viana do Castelo herrian dagoen bihotzaren irudia

Portugaleko iparraldean datzan Viana do Castelo hiri zoragarrian Jesusen Bihotz Sakratuaren irudi berezia dugu, gero XVIIItik aurrera Portugaleko bitxigintza tradizionalak zabaldu zuena han-hemenka. Maiz aipatzen du Miren Gorrotxategik bere nobelan. Horra argazki bat.



 alamy stock photo

MAP1DE
www.alamy.com

Egeria arte-lana eta Joana Vasconcelos artista bera. Amália Rodriguesen fadoak.



Azkenik, bada, Egeria, Joana Vasconcelosen beste lan bat dugu. Mitologian oinarritua, nobelan ere aipatua dator. Irudiak eta gero musika. Portugaleko etengabeko erreferentziak, bisualak eta lekukoak ere. Hain zuzen, ez ote dio eleberri egileari Viana do Castelo Portugal iparraldeko hiria Viana Nafarroako herria iradoki?

Lehen kapitulutik hasteko, egilearen erreferentzia ezinbestekoak agertzen dira: misterioaren etsikortasuna. Zelanbaiteko patu beltza, egileak nolabait, musikarekin argitzen diguna, hots, Amália Rodriguesen fadoak ongi datoz Nora eta Alexen maite-harremanen patua irudikatzeko: *Maldição*: (madarikazioa), adibidez. Arestian aipatu dugun bihotz beltzarekin batera, hainbat eta hainbat aldiz nobelan aipatua. Eta fadoak dioena, aise aplikatu dakieke Nora eta Alexi:

Que destino, ou maldição

Manda em nós, meu coração

Um de outro assim perdidos?

Somos dos gritos calados

Dois fados desconstruídos

Dois amantes desunidos

Porti sofro e vou morrendo

Não te encontro, nem te entendo

A mim odeio sem razão...

Eta hurrengo fadoa, **Estranha forma de vida**-k bihotz errantea, alderraia erakusten digu, norberak menderatzen ez duen bihotza, horregatik poetak gelditzeko diotso, ez baitaki nora doan, “ez zaitut gehiago lagundu nahi”. Nora pertsonaiaren biziera eta jarrerarekin ezin egokiago uztartzen dena. Hona hemen bigarren fadoaren hitzak, aurrenik portugesez, gero gaztelaniaz:

Estranha forma de vida

Foi por vontade de Deus
Que eu vivo nesta ansiedade.
Que todos os ais são meus,
Que é toda a minha saudade.
Foi por vontade de Deus.

Que estranha forma de vida
Tem este meu coração:
Vive de vida perdida
Quem lhe daria o condão?
Que estranha forma de vida.
Vive de vida perdida
Quem lhe daria o condão?
Que estranha forma de vida

Coração independente,
Coração que não comanda:
Vive perdido entre a gente,
Teimosamente sangrando,
Coração independente

Eu não te acompanho mais:
Para, deixa de bater.
Se não sabes aonde vais,
Porque teimas em correr,
Eu não te acompanho mais.

Se não sabes aonde vais,
Porque teimas em correr,
Eu não te acompanho mais.
Se não sabes aonde vais,
Para, deixa de bater
Eu não te acompanho mais.

Extraña forma de vida

Fue por voluntad de Dios,
por la que vivo en esta ansiedad,
que todos los ayes son míos,
que completa mi nostalgia.
Fue por voluntad de Dios.

Qué extraña forma de vida
tiene este corazón mío:
vive de vida perdida
¿quién le daría ese don?
Qué extraña forma de vida:
vive de vida perdida
¿quién le daría ese don?
Qué extraña forma de vida.

Corazón independiente,
corazón que no gobierna:
vive perdido entre la gente,
obstinadamente sangrando,
corazón independiente.

Yo no te acompaño más:
¡para, deja de latir!
Si no sabes dónde vas,
¿por qué insistes en correr?
Yo no te acompaño más,

si no sabes dónde vas,
¿por qué insistes en correr?
Yo no te acompaño más.

Si no sabes dónde vas,
¡para, deja de latir!
Yo no te acompaño más.

Alegia, bi fado diferente, bi maitale bereizi. Fadoa eta, bere ordezkari behinena Amália Rodrigues, nobelan barrena, ikusiko dugun legez, Portugali buruzko murgiltzea erabatekoa gerta dadin.

IDAZLEAREKIN HARIXA EMOTEN

<https://www.eibar.eus/eu/kultura/jsm-liburutegia>

<https://www.liburutegiak.euskadi.eus/eibar>



@EibarLiburutegi



@EibarkoLiburutegia



@eibarkoliburutegia



@eibarkoliburutegia



Juan San Martin Liburutegia

Bista Eder, 10 (Eibar)

Tel. 943 70 84 37

liburutegia@eibar.eus



Euskara Elkartea